

Kultura zientifikoa

Bete-betean dagokigun gai bat jaso dugu zenbaki honetan. Izan ere, zientziaren komunikazioan aritzeak halaberrez egiten gaitu zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemaren parte. Zientziaren komunikazioan gaude espezializatuta, eta gogo batek bultzatzen gaitu. Eta gogo horren ikurra litzateke kultura zientifikoak izenondorik eramango ez duen gizarte bat: ez du izenondorik izango, besterik gabe kultura izango delako, gaurgero kulturara berdindu ditugun beste gai guztiak bezalaxe; gainera, kultura izango da, ez Kultura.

Gizarterik gabeko kulturarik ez dago, ordea, eta, horregatik, gainerako ondorioek baino gehiago kezkatu gaitu Euskal Herriko biztanleek zientziari, teknologiari eta berrikuntzari buruz erakutsitako jarreretako batek. Aldizkari honetara ekarritako azterketan esaten dute ez dutela aparteko interesik zientzia eta teknologiari buruzko gaiekin, non eta ez zaizkien baliagarriak beren eguneroko bizitzan. Ondorioa ez da berria, egia esan, eta ez gaitu ustekabeen harrapatu. Lehenago ere jaso da Eurobarometroak Europa mailan egindako iritzi-billetetan, edo FECYTEk Espainian egindako inkestetan. Euskal Herrian berriaz egindako lehenengo azterketa honek berretsi egiten du, beraz, jakin, bagenekien zerbait.

Alabaina, jakinagatik ez dio kezkarri izateari uzten, gure gogoaren oinarria bera botatzen baitu behera. Izan ere, zientzia- eta teknologia-gaiekiko aparteko interesik ez badugu, zer nahi dugu gure gizartearentzat? Despotismo zientifiko ilustratua? Batzuek ez genuke nahi, eta, zorionez, ez dirudi. Azterketako parte-hartzaileek iritzi sendoak dituzte zientzialariekiko eta zientzia- eta teknologia-sistemarekiko; oso kritiko ageri dira jarduneko zientzia-politikekiko, eta garbi dute ezinbestekoa dela espiritu kritikoa eustea zientziaren eta teknologiaren aurrean. Hori ez da zientzia- eta teknologia-gaiekiko aparteko interesik ez edukitzea; hori kontraesan bat da. Baina ez da hutsala. Izan ere, oztopo bat da bultzatzen gaituen gogoaren bidean, eta aitzakia on bat zientzia eta teknologia herririk gabe egiteko.

**Eider Carton Virto**

*Elhuyar Zientzia
eta Teknologia*
aldizkariaren
zuzendaria



26

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

euskal gizartearen begietan

Gizarteak, oro har, goraiatu egiten ditu zientzia eta teknologia, eta zientzialariak. Hala ere, hain onak ez diren alderdiak ere badituztela ikusten du. Eta bereziki kritikatzan ditu zientzia-politikak eta politikariak.

**Sir Harold Kroto**

Sir Harold Kroto kimikariak fullerenoa aurkitu zuenean, beste kimikari batzuek ez zioten sinetsi. Bost urte behar izan ziren fullerenoa egitura zuzena dela frogatu ahal izateko. 1996an Nobel saria eman zioten.

32



37 Metal arraroak, agortzeko bidean?

Metal arraroak produktu askoren ezinbesteko osagaiak dira, eta gero eta aplikazio gehiago dituzte. Baina erazten oso zailak dira, eta eskasiak eragin ditzakeen arazoengatik kezka piztu da nazioarteko merkatuan.

Nirea niretzat eta gurea naturarentzat

Naturaren kontserbazioaren aldeko ekimenak erakunde publikoekin lotzen ditugu gehienetan. Hala ere, harremanetan egoten dira, tarteka, naturaren kontserbazioa eta jabego pribatua. Batzuetan erakunde publikoak bitarteko dira harreman horretan, baina beste batzuetan ez.



41

Haurdun gelditzea gizonezkoen esku

Emakumeentzako antisorgailu hormonalak 1960an merkaturatu ziren lehenengoz, eta arrakasta izan dute. Ezin gauza bera esan gizonezkoentzako antisorgailuei buruz; hiru hamarkada gehiago behar izan dira horien inguruko ikerketak seriotasunez egiten hasteko.

47



56 Eboluzioak bostekoa eman zigun

Gizakiaren eskuen diseinua ez da eskuetan eta gizakietan bakarrik agertzen. Eboluzioaren lorpen handienetako bat da. Eta eskuarekin batera kiridioa, besoaren hezur-multzo osoa, alegia. Beste espezieei begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko.



aurkibidea]

4 FLASHA
Otsoaren jauzia

6 ALBISTEAK

20 MUNDU IKUSGARRIA
Hawaiiiko sumendiak

24 MUNDU DIGITALA
Errealitate gehitua:
munduaren pertzepzioa
aberasten

26 ZIENTZIA ETA
TEKNOLOGIA
euskal gizartearen begietan

32 ELKARRIZKETA
Sir Harold Kroto

37 Metal arraroak,
agortzeko bidean?

41 Nirea niretzat eta
gurea naturarentzat?

47 GAI LIBREAN
Haurdun gelditzea
gizonezkoen esku

ANALISIA

52 Kopenhage COP 15erako bidea.
IBON GALARRAGA ETA ANIL MARKANDYA.

54 Bizi artifiziala eta haren ondorioak.
ALVARO MORENO.

56 GOGOETAN
Eboluzioak bostekoa
eman zigun

58 ISTORIOAK
Lizunen miraria

60 LIBURUTEGIA
Kepa Altonagak gomendatuta,
eboluzioa irakurgai

61 UMORE GRAFIKOA
Satorrak Ilargian

62 ASTRONOMIA

64 HURRENGO ZENBAKIAN